

MIGRAZIO-POLITIKEN GIZA KOSTUA

Europa ez da segurua; «heriotza eta babesgabetasuna» baino ez dakar

 **MIGRAZIOA** / Ibai AZPARREN

Mugarik Gabeko Medikuek txosten bat argitaratu du, Europako politikak beren mugetan eragindako krisiaren ondorio latzak zehaztuz. 7.900 kontsulta mediko eta 2023ko 8.400 pertsonen itsasoko erreskateak oinarri hartuta, EBren eta estatuen politikak baimendutako indarkeriazko taktikak izugarri bizkortu direla salatu du.

Azken urteotan, European, bere mugetan eta mugetatik kanpo, jatorri politikoko krisi bat piztu da, eta horrek heriotzak, etsipena eta babesgabetasuna areagotu ditu Europako Batasunean (EB) segurtasuna eta babesa bilatzen saiatzen diren pertsonen artean. European eta Europatik kanpo, Mugarik Gabeko Medikuen taldeek migrazio-politi-

ken «ondorio suntsitzaileak» aztertu dituzte, eta "Heriotza, etsipena eta babesgabetasuna: EBko migrazio-politiken giza kostua" txostenean islatu. Ondorio nagusia esanguratsua da: EBko politikak bidez indarkeria normalizatzen ari da disuasio-modu gisa, segurtasun bila mugitzen diren pertsonen babesaren izan ez dezaten.

Txosten honek erakundeak Europako eta Afrikako 12 herrialdetan eta erdialdeko Mediterranean egindako opera-

zio sanitario-humanitarioen emaitzak islatzen ditu; zehazki, medikuen eta pazienteen lehen eskuko testigantzak jasotzen ditu, larrialdiko 7.900 kontsulta mediko baino gehiagoren eta 2023ko 8.400 pertsonen itsasoko erreskateen ondoren. Halaber, Libiako, Balkanetako, Poloniako, Greziako eta Italiako egoera aztertzen du, «politika eta praktika gero eta kaltegarriagoetako laborategi» bihurtu baitira.

2015eko "migrazio-krisia" deritzonetik, Mugarik Gabeko Medikuek sistematikoki eskatu die EBri eta haren estatu kideei beren erantzukizuna har dezatela migratzaileen laguntza- eta babes-premia larriei erantzuteko orduan. Hala ere, hobetu beharrean, salatu du «errefuxiatuen eta migratzaileen aurkako indarkeriaren normalizazioa errotu» dela, eta EBko erakundeek inbertsio handiak egin dituztela hiruga-

ren herrialdeetan, hala nola Nigerrren eta Libian, non migratzaileen bidea blokeatzen duten edo jatorrizko herrialdeetara itzultzen dituzten, tratu txarrei aurre egin eta gero.

HARRAPATUTA

Ondorio nagusietako bat da migratzaile asko erabat harrapatuta daudela. Horren adibide da Libiako kostazainen zeregina; izan ere, EBk finantzatuta, itsasoan dauden pertsonak hartu eta Libiako atxilotze-zentroetan giltzaperatzen dituzte. Erakundeko taldeek zentro horietako batzuetan lan egin dute, 2016tik 2023ra. Bertan, «bizi-baldintza negargarriak» dokumentatu zituzten, gaixotasun kutsakorrak erraz zabaltzeko aukera ematen dutenak. Gainera, erakundeak ohartarazi du pazienteek salatu egiten dituztela jipoiak, gizakien salerosketa, sexu-erasoak eta tortura.

Ezkerrean, migratzaileak Bruselan lo egiten duen gela handietako bat. Eskuin aldean, errefuxiatuak mendebaldera bidean negubetea. Pierre FROMENTIN | MSF



Nigerren, Serbian eta Tunisian EBtik kanpoko indarkeria-
ren antzeko ereduak jasotzen
ditu erakundeak, bai eta mi-
gratzaileen eta errefuxiatuen
oinarrizko osasun-laguntza
eta segurtasuna ukatzeko ere-
duak ere. «Hala ere, indarkeria
hori EBko mugen barruan ere
argi eta ondo dokumentatuta
dago», Mugarik Gabeko Medi-
kuen esanetan, eta Polonia,
Grezia, Bulgaria eta Hungaria-
ko adibideak aipatzen ditu.

BLOKEATUTA

EBko mugak zeharkatzen di-
tuzten pertsonak «deshidrata-
zioak, hipotermiak eta zau-
riek» jota hiltzen ari dira,
salbu jartzen saiatzean edo be-
rotan egindako itzultze borti-
tzetatik ihes egitean. Beste ba-
tzuk Mediterraneo eta Egeo
itsasoetan itotzen dira, lagun-
tza, bilaketa eta salbamendu
faltagatik eta kostazainen
praktika arriskutsuengatik.



**Babesaren bila migratzen dutenek kalte larriei
aurre egin behar izan diete, EBk «migratzaileak
harrapatu, blokeatu eta atxilotzeko eta hauei
segurtasuna ukatzeko» duen asmoaren seinale**

**Mugarik Gabeko Medikuen txostenak 12
herrialdetan egindako ekintzen emaitzak
zehazten ditu. Horiek «EBko politiketako
indarkeriazko jardunbideak» islatzen dituzte**

Baina beste batzuk erabat blo-
keatuta geratzen dira. Erakun-
deak Europan dauden 2.000
kilometro baino gehiagoko
mugako hesiak eta hormak sa-
latzen ditu, «jendea EBtik kan-
po mantentzeko diseinatuta-
koak, askotan arantzazko
alanbrearekin koroatuak eta
droneekin indartuak».

Horren adibide dira Polonia-
Bielorrusiako eta Serbia-Hun-
gariako mugak. Arkitektura
hori osatzeko, «legea bete-
razteko» ardura duten hain-
bat segurtasun-indar daude.
Segurtasun bila dabiltzanen
aurkako errepresio bortitzek,
tratu apalesgarria barne, lesio
fisikoak eta trauma-osteko es-
tres-nahasmenduak eragin di-
tuzte, erakundearen arabera.

Poloniako mukan, zehazki,
Mugarik Gabeko Medikuek sa-
latu dute pazienteen ia %40k
mugako harresiaren azpiegi-
turak eragindako lesioak zi-
tuztela. Grezia, Bulgaria, Hun-
garia eta Poloniako mugetan,
indarkeriak eragindako zau-
riak eta kalteak tratatu zituz-
ten. Gainera, 2023an, 12 hon-
doratzetatik bizirik atera
zirenak artatu zituzten, baina
orotara Italiako eta Greziako
kostaldean 875 hildako edo
desagertu dokumentatu ziren.

ATXILOTUAK

EBra igarotzea lortzen duten
pertsonek beren osasuna eta

2021eko azaroan, bizirik
atera ziren 99 pertsona
erreskatatu zituen Geo
Barentsek, Libiako
kostaldetik 30 milia
ingurura.
Lerro hauen alboan,
famiak atzera Poloniako
mukan.
Virginie NGUYEN HOANG |
COLLECTIF HUMA
Maciej MOSKWA



ongizatea murrizten dituzten
neurriei egin behar diete au-
rre. Hala ere, babes bila dabil-
tzanek indarkeria pairatu dute
Europara iritsi aurretik ere. Pa-
lerron, 2023ko urtarriletik
abuztura bitartean, Mugarik
Gabeko Medikuek artatutako
57 pazienteen artean, %61ek
Libian torturatu zituztela adie-
razi zuten, eta %58k tratu txar-
rak jasan zituztela atxiloteta-
zentro batean.

Zehazki, Mugarik Gabeko
Medikuek espetxe-egituren di-
namikak salatu ditu, hala nola
EBk Grezian finantzatutako
sarbide kontrolatuko zentro
itxienak. Horiek bertan bizi di-
ren pertsonen osasuna txikitu
dute. «Trauma osteko estresak
eta antsietateak eragindako
depresioak ohikoak dira pa-
zienteen artean, baita haurren
artean ere, eta bizitza- eta hi-

giene-baldintza kaskarrek era-
gindako larruazaleko afekzio
kutsakorrak, berriz, ugaritu
egin dira», salatu dute..

Identifikazio- eta harrera-
zentro horietan –hotspots
izenaz ezagutzen direnak–,
mugako prozedurek ziurga-
betasuna eta larritasuna sor-
tzen dute, eta babesak
desegiteak eta laguntzeak,
berriz, zaintzarik, babesik eta
bizi-laguntzarik gabe uzten
ditu migratzaileak.

UKATUTAKO SEGURTASUNA

Lurrez EBrako sarrera blokea-
tzeaz gain, estatu kideek itsa-
soan arriskuan dauden pertso-
nei laguntza emateko duten
betebeharrari ere muzin egin
diotela salatu du erakundeak.
«EBtik kanpoko kostazainen
salbamendu-erantzukizunak
kanporatzeak eta Mediterra-



neon bilaketa- eta salbamen-
du-ahalmenak bertan behera
uzteak ia eguneroko tragedia
bihurtu dituzte hondoratzeak
eta saihestu daitezkeen herio-
tzak Mediterraneo erdial-
dean», adierazi dute.

Bien bitartean, Europako
kostaldera iristea lortzen dute-
nek «disuasio-politikekin egi-
ten dute topo, eta horrek ez
die uzten sendatzen, finkatzen
eta duintasunez bizitzen». Izan ere, asiloa eta horri lotu-
tako eskubideak ukatzen zaiz-
kien pertsonen kalean edo
etxe okupatueta bizi behar
izaten dute. Belgikan eta Ho-
landan, Mugarik Gabeko Me-
dikuek salatu dute «harrerare-
kin lotutako zerbitzuetatik
kanpo geratu diren pertsonen
osasuna okertu egin dela».

Gainera, erakundearen psi-
kologiako langileek jakinarazi
dute kalean bizi diren pertso-
nen osasun mentala nabar-
men okertu dela, nahasmendu
psikotikoa, trauma-osteko es-
tresaren nahasmendua eta de-
presioa diagnostiko nagusi-
tzat hartuta.

«Haurrak, gainera, estatua-
ren abandonuaren eta bazter-

ketaren helburu dira. Fran-
tzian, inoren kargura ez dau-
den ehunka adingabe daude,
estatuko zerbitzuetatik, arre-
tatik eta babesetik kanpo», sa-
latu du erakundeak.

MIGRAZIO ITUNA

Txostenean jasotako froga ho-
riekin guztiekin, Mugarik Ga-
beko Medikuek erakusten du
indarkeriak EBn nazio eta es-
kualde mailan aurkeztutako
proposamenak markatzen ja-
rraitzen duela. «EBko Migrazio
eta Asilo Itunean aurkeztutako
egungo erreformek indarkeria-
sare bat jasotzen dute, segurta-
suna bilatzen dutenak uxatu
nahi dituen», zehazten du.

Hain zuzen ere, Europako
Batasuneko Kontseiluak (EB),
Europako Parlamentuak eta
Europako Batzordeak aben-
duaren 20an adostu zuten
itun hori, hiru urteko negozia-
zioen ondoren. Akordioa fun-
tsezko bost erregelamenduk
osatzen dute, zeinak EBra mo-
du irregularrean iritsi nahi du-
ten pertsonen sarbidea gogor-
tzen duten, eta «elkartasun
malguko mekanismo berri»
bat ezartzen du akordioak, he-

Lerro hauen gainean, Calais,
Estatu frantses eta
Erresuma Batuen mugan.
MSFk proiektu bat
berrabiaraziko du bertan.
Eskuin aldean, Rüdinkaiako
aldi baterako kanpaleku bat.
Vidmantas BALKUNAS / BNSUR8

rrialdeei aukera ematen diena
migratzaileen harrera saihes-
teko, konpentsazio ekonomi-
ko baten truke.

Erakundearen ustez, Euro-
pan segurtasuna bilatzen du-
ten pertsonen harrera-baldin-
tza duinak bermatu beharrean,
Itunak atxiloteta *de facto* ins-
tituzionalizatzea eta pertso-
nek asiloa eskatzeko duten es-
kubidea ahultzea baino ez du
egiten. Izan ere, adierazten du-
te Itunak ez duela indarkeria
geldiaraziko segurtasunik ga-
beko herrialdeetan mugen ku-
deaketa kanporatuz; ez ditu
amaituko mugetako itzulke-
tak, ez eta espetxeetako an-
tzeko baldintzetan dauden
pertsonen atxilotzeak ere; ez

die helduko harrera-baldintza
seguru eta duinei, ez eta asi-
loa eskatzeko espazioari ere;
ez du babestuko biziak salba-
tuko dituen laguntza humani-
tario independentea izateko
eskubidea.

Indarkeriaren etengabeko
normalizazio horren aurrean,
erakundeak adierazi du ez
duela gomendio politikorik
edo konponbide azkar eta sin-
plerik proposatzeko. Aitzitik,
honako hau adierazi du: «EBk
lehenbailehen aurre egin
behar die indarkeria horren
oinarrian dauden arazoei, hala
nola deshumanizazioari, euro-
parrak ez diren herrialdeetako
errefuxiatuen eta migratzaile-
leen aurkako arrazakeriari eta
segurtasuna blindatzean soi-
lik oinarritutako ikuspegiari». Horrek, adierazi duenez, «pre-
miazko eta funtsezko norabi-
de aldaketa eskatzen du, EBko
mugetan babesa bilatzen ari
diren pertsonen artean den-
bora luzeegian zentzurik ga-
beko heriotzak, lesioak eta epe
luzerako traumak eragin di-
tuzten azpiko kausei helduko
dieten konponbide esangura-
tsuekin batera».

**Nazioarteko hainbat erakunde humanitariok
migrazio-itun berria kritikatu dute. Mugarik
Gabeko Medikuen ustez, disuasio-politikekin
jarraitzea eta hauek areagotzea erakarriko du**

**Indarkeria normalizatzen ari dela ikusita,
erakundeak EBri eskatzen dio norabidea
lehenbailehen aldatzeko eta migratzaileak eta
errefuxiatuak deshumanizatzeari uzteko**